



2019ko « HGL SELFIE » LEHIAKETA

HAUR ETA GAZTE LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA dela eta, Haur eta Gazte Liburuaren Espainiako Erakundeak, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren babesarekin, «HGL Selfie» lehiaketa antolatu du.

PARTE HARTZEKO:

1. Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan dauden irakurle guztiek har dezakete parte, bere ikastetxearen edo liburutegiaren bidez:
 - Haur eta Gazte Literaturako obra bateko pertsonaia bat edo eszena bat hautatu behar da.
 - Hautatu den pertsonaia edo eszena irudikatu eta islatuko duen autoargazkia (selfia) atera.
 - Argazkia, honen inspirazio iturri izan den ilustrazioarekin edo liburuaren pasartearekin batera aurkeztu behar da.
 - Pertsonaia edo eszena hori Haur eta Gazte Literaturako zein obratakoa den ere ipini beharko da.
2. Lan guztietan agertu beharko dute egileen identifikazio-datuek: izen-abizenak, adina, jaiotze data eta ikasmaila. Baita irakaslearen edo bibliotekariaren izenak, eta zentroaren izen, telefono, helbide eta kontakturako posta elektronikoa ere.
3. Ikastetxeek eta liburutegiek, euren irizpide onaren arabera, **kategoria bakoitzeko hiru lan aukeratu beharko dituzte gehienez**, eta posta arruntez nahiz posta elektronikoz bidali beharko dituzte **apirilaren 2a baino lehen**, beheko helbideetara, bakoitzaren bizilekuaren edo parte hartuko duen hizkuntza-eremuaren arabera:
 - **Consejo General del Libro Infantil y Juvenil.** c/Santiago Rusiñol, 8. 28040 Madrid. secretaria@consejodellibro.org
 - **Consell Català del Llibre Infantil i Juvenil- ClijiCAT.** c/Mallorca, 272-274. 08037 Barcelona clijcat@clijcat.cat

- **Galtzagorri Elkartea.** Zemoria, 25, Behea. 20013 Donostia. galtzagorri@galtzagorri.eus
- **Gálix.** Centro de Emprendemento. Cidade da Cultura de Galicia. Monte Gaiás, s/n. 15707 Santiago de Compostela. galix@galix.org
- **OEPLI.** concursodiainternacional@oepli.org

Liburutegiak/eskolak/liburu-dendak argazkiak sare sozialetan zabaldu ahal izateko guraso/tutoreen baimena bidaltzeko konpromisoa hartzen du.

4. Kategoria eta hizkuntza-eremu bakoitzeko sari bat emango da:
 - Lehen irakurleak (Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. maila)
 - Irakurle aurreratuak (Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. maila)
 - Super-irakurleak (Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila)
5. Sari bakoitza diploma batek eta liburu-sorta batek osatuko dute. Egileentzat eta lana aurkeztu duen erakundearentzat (ikastetxea edo liburutegia) izango da sari bana.
6. Epaimahaia OEPLIren atal bakoitzeko ordezkariak osatuko dute.
7. Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 21a baino lehen emango da jakitera eta sari-banaketa OEPLIren atal bakoitzaren bitartez antolatuko da.
8. Irabazleak erabaki ostean, jatorrizko lanak ez zaizkie egileei itzuliko. OEPLI eta bere atalek argazki irabazleak erabili ahal izango dituzte HAUR ETA GAZTE LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNAREkin zerikusia duten euskarri eta erabilera desberdinetan. Horrek ez die parte-hartzaileei inolako irabazirik izateko eskubiderik emango.
9. Lehiaketan parte-hartze hutsak guraso/tutoreen baimena ekartzen du adin txikikoen argazkiak sare sozialen bidez eta OEPLIren eta bere atalen web guneen bidez argitaratu eta zabaldu daitezten.
10. Lanak aurkezte hutsak adierazten du parte-hartzaileak lehiaketako oinarriak onartu eta horiekin bat egiten duela.

Madril, 2019ko otsaila